

ARRITOKIETAKO

ANDRA MARIAREN

BEDERATZIURRENA

“Magnificat,, eresaren gaiaz

Lizarralde'tar J. A. Aita

Franziskotarrak

egiña



BERGARAN

ARROSARIO GUZTIZ SANTUAREN MOLDIZTEGIAN

1923-garren urtean

7




LIBRERIA
DE
D LUIS MARTINEZ
KLEINER

VOL
2843

TABLA
59

CARRASCO





Arrietokietako Andra Mariaren altarea

M- 82273
L- 87251

ATV
39007

ARRITOKIETAKO

ANDRA MARIAREN

BEDERATZIURRENA

“Magnificat,, eresiaren gaiaz

Lizarralde'tar J. A. Aita

Franziskotarrak

egiña



BERGARAN

ARROSARIO GUZTIZ SANTUAREN MOLDIZTEGIAN

1923-garren urtean

NIHIL OBSTAT

Fr. Josephus M.^a Azcue

Censor Ordinis.

IMPRIMI POTEST

Fr. J. Antonius Urquiola

M. Prov.

NIHIL OBSTAT

Lic. Petrus de Anasagasti

Censor Eccus.

IMPRIMATUR

Victoriae 20 Augusti 1923.

Gubernator Eccus. (s. p.)

Dr. Assumption Gurruchaga

ITZAUŔEA



Oraindik orañ argitaldu da Zumaya eŕi izen onekoaren antxiñako beŕi ugariyak adierazten dituan erderazko idaztia: La Villa de Villagrana de Zumaya, Luis Martínez Kleiser'ek egiña. Liburu oŕetxek badakarzki Zumaya eŕian diran entzuerā aundieneko gauzen sustraiak. Baita tartetxo bi edo irutan ere azaltzen dira Aŕitokietako Andra Marizaz paper zaŕetan billatu leizken agiriak. Ustez bere ermitatxoa amaseigaŕen eunkadi auŕetik jasoā izan zan, ta bere alboan bazuan bidez zijoazenentzat ostatu ospital bat. Baña iñoiz ermitatxo ori Zumayako eliz nagusia izan danik ezin esan leike.

Guk, oŕatio, eztegu uste oker aundirik esango degunik, garai batean Aŕitokietako Andra Mariaren elizatxoa izan zeikiela eŕiko eliz nagusienetakoa esatera ausartzen bagera. Atzekoz auŕera

artu eziñik eztuan adibide edo arazoirik eztegu azalduko, baña itxurazkoak dira benepen eta Zumaya eriri ongi dagozkionak.

Eztegu ezpaidaka iñorekin jardun nai; gere gisa adieraziko ditugu gure iritziak ematen dizkigunak. Eta lendabizi oartu bear da auře-auřeke eunkadietan santuen ermitak, bakoitza bere auzoan eliz nagusi egiten zala, baña ez eliz pařokiak, pařoki izena eta legea geroxegokoa baita. Zumaya izenpean bost auzo biltzen ziran, nunit, aspaldiko garai batian: San Pedro auzoa, San Telmo, Santa Clara, Santiago ta Arítokieta. Lenengo iru santu oien izenak itxasgizonen zaindari patroiak dira ta iñundik ere iru auzo oietan arantzaleak, been santu Zaindarien Kofradi anaidian alkartu, ta auzo egiten zuten. Santiago ta Arítokietan ordea artzaiak, lugiñ nekazariak been artu-emanak erabiltzen zituzten.

Dana dala, Arítokietako Andra Mariaren izena, erderaz: Monasterio de Santa María, amairugařen eunkaditik ezaguna da. Ba, IV-en Sancho izena zuan Kastillako Eřegeak, bere pekatuen ordañerako, Ronzesvalle izena duan lekaitxe kon-

bentuko lekaidiai eman zien Aritokietak zituan mendi, iturri, errika, baruti, mendekoak ziran gizon, eskubide ta bereak ziran alde guztiak.

Andra Mariaren ermitatxoa iru serorak zaintzen zuten, eta ara joaten ziran erbestetari ostatu eman ere bai. Alako batean etorri zan Zumayara Karmelotar prailen bat, eta iru serora aiek Irugearen Ordenan artu zituan nunbait, eta geroztik serora utsak ezpaño egizko monjak ziralako, Torreako etxera aldatu zituan konbentu bizitza egin zezaten. Milla bosteun larogei ta amargaeren urtean, zazpi ziran monja antzeko serorak; eta konbentu oni Aritokietatik etorri ziran serorana zalako, erderaz deitu zitzaion, Monasterio de Santa María.

Monja sartu ziran serora aiek izan zituen been ordezekoak Aritokietan, eta elizatxo au, Zumaya guztia azpian artzen duala, itxas aldetik sortzen ziran etsaiak gainberatzeko mendi gallur egokia, nagusiena zan, aiek eta bost auzoak bat egin da, San Pedrorena zelai ta erosoena zan ezkerre, guztien artean parokitzat aukeratu zuten bitartean. Eta beñ paroki izentaturik, aureneko ermita

txoaren zuztařetik eliz eder galanta jaso zan.

Baña basterturik gelditu bazan ere Ařitokietako elizatxoa, beti maite zuten zumayařak, gaur ere alaxen dute ta. Iñoiz ezbeařen bat gertatzen zaiona, ernaimindunak, gaizpean daudenak, gudari soldadu joatera egokituko ote zaien bildur diranak, estuasun aldi baten arkitzen diranak... Ařitokietara igo oi dira Andra Mariaren laguntza eske. Zumayařak joera aundia dute Ařitokietarako.

Aste santuan egiten diran ibildeun prozesioak arutza zuzentzen dira, ta Pazkua egunean antxe Jesusen bezpiztuera antzikatutzen da. Joan dan urtean nere begiz ikusi nituan Aste santuko prozesio oiek, eta egiñ ere ikusgaři egiten dira ta, nere buruari esan nion: aldapa ontantxe ibilliko ziran auřeko gurasoak, gurutz aztunak bizkařean zituztela, Ostegun eta Ostiral santu gaubean, Jesusen nekaldiaren zaleak ziranda....

Gaurko egunean txukun-txukunki zaintzen da elizatxo ura, ta auřerakoan ere dagokion erara zaintzeařen, Andra Mariaren izenpean Anaidi Hermandade bat, Beobide tar Manuel Zumayako

Paŕoko Jauna buru dala, orañ lau urte izentatu zan.

Andra Mariaren irudia amabostgaŕen eunkadian landua da, lengo zaŕaren ordez ipintzeko nunbait. Antxiñako zar ura pipiak jo ta auts biurtzen zijoan da, au gertatzen zitzaienai lur azpian il-obian sartu oi zituzten. Oraingo irudia, soñgañekuak eunezko jantziak erantzi ta, zutik azaltzen da. Zurezkoa da ta egoki leundua ematen du; batez ere Ama Birjiñaren jaŕera lerdan eta liraña da, jazkeran eztu toles itxusirik; arpegi biribilbiguñ jatoŕa. Jesus aurtxoa erdi soñutsik, Amaren ezkerereko besoan. Ez Amak ez Semetxoak eztaukate eskuan iñungo adigaŕirik; baña euki bear luteke zertxo bat: Jesusek uso edo beste egaztitxo bat, Amak beŕiz sagar antzeko ale borobil bat. Bere garaiko irudiak onelakoxe zertxon bat erakutzi oi dute, ta badute been zentzuna edo misterioa.

Irudi au beŕiztatu edo osatu egin zuan ba onelako zure lanetan trebea dan Beobidetar Juliok, beŕiztatu ere egoki egin, baña antxiña izango ziztuan simbolo adigaŕien antzikgabe.


Edeía ez eze dotorea ere bazan irudi auxe egin beía zalarik, soñegañekoa mantua urstatua zeukan da. Esan dan bezela, gaur eunezko soñekuak daramazki, ta jez edozeñ jantziak ere! ¡Zumayar alabak been Aritokietako Andra Mari kutuna apaintzen, artekoak diranak ezagun dute, inolaz-ere!

Aritokietako ermitatxoak badu gogoan artzekoa dan beste oroigarí bat. Milla seireun ogeita bat gaíren urteko otsaillaren bigaíren eguna zan, Zumaya guztia goruntz Aritokieta aldera igo prozesioan, eta beruntz eliza nagusira eldu zanean, Andra Mariaren Sortze Erugabea sinistu ta aintzakotzat beti eutsitzeko itz eman zuan, eta eriko Zaindari nagusi eta Bitartekotzat izentatu zuan. ¡Jai alai galanta ta Zumayarrak betiko gogoan izan bear duten gertaera atsegingaría izan zan uraxe, noski!

Ezta nere buru egitekoa, baña nere ustez, Aritokietako Andra Maria, bere Sorkunde garbiaren izenpean, Zumayako Zaindari nagusitzat izentatu bear litzake...



Arrietokietako Andra Mariaren irudia



ARRITOKIETAKO ANDRA MARIAREN

BEDERATZIURRENA

Magnificat eresieren gaiaz.

MAITE-DAMUZKO OTOITZA

Ontasun uts-utsa zeran nere Jaungoiko ongillea! Atsegiñ aundia dagokit zuregandik datorzkidan doai ederrak aintzakotzat artu ta nere burua zure mendekotzat ezagutzea. Zu zera nere Jaun eta Jabea, gauza guztien gañetik maite zaitudana. ¡Ai, oraiñ egiten naizen bidean okertugabe beti ibilli banitz! Zenbat bider zuregandik alde egin da pekatupean itzuli ta irauli ibilli naizen! Eta bein pekatu goikarria egin banuan egin nuan! Gerostik barruan sortzen zaizkidan kezka garratzez larritu

ta bizi naiz. Damudet bada, Jauna beiñ berriz damu det zure lege ariñ biguñari utsegiña. Eman zadazu iarren! pekatupean berriro irauli ez nadin bear dedan lagun-tza. Bai, ondo igerri diot geiagoren-geia-goz pekatu bidean galdu ez nadin lagundu nai didazula, zure Ama ta nereea dan Andra Mariari bederatziurren au egitea bear-tu nazu ta. Onelaxe sinistu nai det eta au onela sinistean pozaren indarrez nere biotza urtu ezbeste egiten zait. Lagundu al nazakezu, Jesus nere Askatzalle gurgarri orrek, zu maite-maite izatearren, eta nere burua maite dedan neurrian lagun urkoa ere maitatzearren da ta. Gurutz gañetik gure amatzakotzat eman ziguzun zure Ama ezpestelakoaren izenean eskatzen dizut, bada, nere utsegiñ guztien barkapen osoa, ez geiago pekatu egiteko artzen dedan asmoaren sendotasuna eta aurrerakoan zertan sayatu bear naizen argitasuna. Amen.

EGUNEROKO OTOITZA

Magnificat anima mea Dominum.

Nere Ama maite-maiten ori! Zu zera Gabriel Aingeruak Jesusen Amatzako alaba guztien artean aukeratu ziñuzen amagai liraiñ polita; zure lengusu Isabelek emakume guztien artean bedeinkatua deitu zizuna; eguzki aldetik etorri ziran iru Erregeak, Belengo estalpetxoan Jesus aurjaioberria magalean laztantzen zenduala, billatu ziñuen Ama eder samurra. ¿Nundik datorkizu orrenbesteañoiko izen aundi ori? Alajaña! zeruko Aingeruak ere errenka egin da, iñoiz entzun eztiran itz leun biguñenak esaten dizkitzue; zure lengusuak, berriz, andra guztien artean andra izen onekua deitzen zaitu; munduan been burua goian dutela azaltzen diran erregeak, zure aurrean auspertzten dira. Iñundik ere beste iñor ezpestelakoa zera zu! Eta zure izen aundi ori Jaungoikoaren begiak zure ondoren darabiltzkizunetik datorkitzu.

Aingeruen aotik entzun ziñuzen itz leunai, egin bedi nigan zuk diozuna, Jaungoikoaren mirabea naiz ta, erantzun zenduan; Isabelen esanai, ordea, zer ordaindu eze-kiñuzula ¿ixillik gelditu eziñan? Ez, noski, orduan da izlari jatorragoa egiñ ziñan, da zerurontz zure begi zoragarriak jaso ta Jaungoikoaren izen altsua goraldtu zenuan. Bai, nere Ama kutuna, Arritokietako eliz onetan ikusten zaitudanean, kanposantu ixillean aingeru ega zuridun baten antzera, itxas ertzean arunz-onunzka dabilten ola uden zurrumurru atsegiña bezela, gure erri gañ ontan goizaldiko argi leunaren antzera, buruak ematen dit zuk gure ordez Jaungoikoaren izena goraldtu ta maitatzen dezula. Izan zaitez, bai, izan zaitez gugatik Jaungoikoari esker onak egiten diozuna. Amen.

LENENGO EGUNERAKO OTOITZA

Et exultavit spiritus meus in
Deo salutari meo.

Agur Maria, jatorrizko pekatuaren kutsu zikiñik eztezun Ama ederra! Jaungoiko altsuaren eskutatik irtendakoa naizela nere buruari igerri diot. Zeru sapai urdiñera begira, nik ondatu nuan jantzi bikañaren urdintasuna dala bera ames egiten det; mendi ertzean egunean-egunean azaltzen dan eguzki alaiaren argi izpi zuriak, iñundik ere nigandik jaulkitzen ziran dizdiri biziak dira; kiñuka ta irriparrez dagation izar sailleak, nere garai bateko koroïaren uztaia dira; nere oiñpean okertua izan ote zan antza badu illargi motelak; lurgañ biribill onek ni beti goraka eutsinentzan egindakoa dan itxura badu; ni neroni nere jarreran mundu onetik beste egiten naiz. ¿Nundik igerri ote nentzake, nere Jaun maitagarria, zure neurrira, zure

berdiñera, zure antz-antzekoa zuzendu niñuzunean ze ikusgarria ta bikaña nintzan zure begietan? ¡A! bai, oraintxe jabetzen naiz, ederra baño ederragoa, noski, goizaldiko argi leuna bezin zoragarria izango nintzan zure eskutatik irten nintzanean, izango nintzan Andra Mariaren Sorkunde errugabea bezelakoxea. Bai inñolazere, Maria sortzez garbia, zu zera nik nere jatorriz izan bear nukenaren irudi pozgarria. Oraintxe bai argi ikusten detala pekatu bidetik sortu zaizkidan kalte itxusi gogorrak. Baña zure begira atsegintzen naiz, eta zure edertasun bikaiñak adierazten dedin onbidetan jarraitzeko asmo bero bat artzen det. Eman zaidazu orretarako bear dedan indarra, batez ere bederatziurren onetan eskatzen ditzudana, zu Jau-naren aurrean pozaren indarrez zorabiatu bearren bizi izan ziñan bezelaxe, ni ere poztu nadin. Amen.

Orañ norberak eskatu beza bederatziurren onen bitartez iritsi nai duana.

*Ondoren bost bider esan bedi **Agur Maria.***

OTOITZ LABURRA: Arritokietako Andra Maria, zure babesean gorde ta zaindu gaitzazu. Amen.

Animako ta gorputzeko osasuna eman eiguzula, arren! eskatzen ditzugu gure Jaun eta Jabea; eta Maria beti Birjiña izan zanaren bitartez oraingo atsekabetik askatu ta betiko zoriontasunean atsegindu gaitzazula. Kristo gure Jaunaren izenean. Amen.

BIGARREN EGUNERAKO OTOITZA

Quia respexit humilitatem ancillae suae, ecce enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.

Ene Nazaretko alaba zoriontsua! Ezin buru eman dieten biotz ondoko samurrak sortzen dizkit zure umiltasun zakonak. Izanik zu alaba guztien artean Jesusen Amatzako aukeratua, andra guztien artean berdiñik eztezuna, zu zera baita zure apaltasunaren bitartez inpernuko etsai biurtu ziran aingeru eskergaistokoen burua azpian artu ta zure burua goian dezula arkitzen zerana. Zeruko doai ugari ta animeko ederkai aukera aundian egindako Jaungoikoaren alabatxo biguñ maitagarria zera, ta zure burua ezeretzat artzearen artzeaz, jatorriz aundikien artekoa izanik txikien artekoa zerekiz gelditzen ziñala. Jaungoikoaren begietako alabatxo kutunena ta gizonen iritzian zorionenekua gertatu ziñan. Zoriona bada zeuri, Jesusen

Amagai zoragarri ori! Emendik aurrera neronek ere nere burua utsera jo nai det, nik ditudan alde on guztiak Jaungoikoa-gandik etorriak aitortzen ditudala. Egundañoko apaltasunen sayatu nai nuke, pekatarien artean pekatariena sinisten naitzela, beti nere buruari beraka eragiten diola, zuk, Ama errukiorra, zure bitartekotasunez goraka eragin didazun Jaunaren bide zuzenetan. Begira eiozu bada nere ezerreztasunari ta lagun ezadazu batez ere gaur eskatzen ditzudana emanaz. Amen.

IRUGARREN EGUNEKO OTOITZA

Quia fecit mihi magna qui potens est, et sanctum nomen ejus.

Birjiña izanik Jesusen Ama gertatu ziran Andra Maria! Bai, inolazere, Jaungoikoak zugan egin zuan bere mirari aundietakoa, Jesus zeruko Aitaren Seme bakarra zure sabel garbian gizondu zanean. Eta zure miragarrizko Amatasun ori noizta nola izango zan Gabriel Aingeruak adierazi zizun Nazaretko etxetxoan. Baña zoragarria baziñan Nazaretko etxetxoan, oraindik nere begietan zoragarrigoa zera gurutzpe itzalean: ¡Ama, ara or zure seme ordezkoa; Joan, ara or zure ama ordezkoa! Jesusen aotik entzunda nere egizko Ama izateko itz eman zendunean. Ezagutzen zaitut nere biotz-biotzeko Ama maitetzat. Artu nazazu ta artu gaitzatzu guztiok aintzakotzat, zaindu gaitzatzu zure ardurapean. Bildu gaitzatzu zure ondoan,

landara baten ale guztiak izen bat bera duten bezela, guztioi izen bat ezarriaz, zure lenseme Kristoren oroipenean, kristauak deitzen gaituzula. Ama, bada, nere zerutar Ama ao bete-betean deitzen zaitut, zure Amatasunaren ezaugarriak bederatzireuren ontan emateko arreta aundiaz eskatzen ditzudala. Amen.

LAUGARREN EGUNERAKO OTOITZA

Et misericordia ejus a progenie
in progenies, timentibus eum.

Ama biotz samurra! Negarbidea, estua-
sun gorria ta eriotza ikaragarria besterik
utzi ez zigun, Paradiso baratzen atsegiña-
ren atseguintasunez zorabiatu bizi izan
zan gure len ama Eba gajoak. Berak ar-
durabekeriz jan zuan sagar alearen ozka-
miña zegokigula gelditu giñan, kardo la-
tza ta sasi larra besterik ez damakin lur
elkor ontan. ¡Eta esan Jaungoiko ongilleak
ezeren sustraitik sortu giñuzenean edonun
eta edonoiz zorionekuak izateko egin gi-
ñuzela! Baña Ebagandik zetorzkigun zori-
txarrak, zuregandik, Ama kupikorra, zu-
regandik sortu zitzazkigun ontasun aun-
dien neurria ziran. Orregatik umezurtz
geunden Ama laztana egiñik, gu atsegin-
tzearren esan zenduan zuk: Jaunaren erru-
kitasuna bere izenaren bildur diranen gañ
izango dala beti-betiko, azkengabe. Itz leun

bat entzun nai genduan zure ao eztitsutik, baita gure biotza errex egiten duten itz leun goxoak dira orixek! Jaungoikoaren bildurpean ibiltzeko asmo sendoa artzen det, zure izenpean biltzen naiz, Ama maitea, zure itzalpean gordetzen naiz, Jaungoikoaren errukiak parkatu dizkidan nere okerregiñak. Eta bide zuzenetik okertu ez nadin, Jaungoikoaren errukitasun ugaria izan dezan, eman ezadazu bederatziurren ontan eskatzen ditzudan atsegiña. Amen.

BOSKGARREN EGUNERAKO OTOITZA

Fecit potencian in brachio suo, dispersit superbos mente cordis sui.

Jakintsuen erregiña zeran Andra Maria! Ekin aldi bat egin zuala Jaungoikoak, adierazi ziguzun zuk, nekealdi aztunak lurrera makurtzen gaituztenak, atsegintzearren; mundu onetan eskubide aundiak dituztenen mendetiti arintzearren, bere Seme maitia Jesus zure bidez bialdu zigunean. Bai, izan ere alaxe izan zan; ezti gozoa ta esne zuria zeriozkaten bezelakoxe itzaldi samurrak adierazi zizkigun da. Esanaldi gogor bat ez, itz garratz bat ez, dana izan zan atsegintasun uts-utsa, biguntasun leuna zure ezpestelako Seme Jesus maitakorra. Ardi galduaren billa etorri nintzan artzai ona naiz, zion berak egun batean. Etorri zaitezte nigana atsekabez bete ta zuen nekaldiai ezin buru emanik bizi zeratenak, nik atseginduko zaituztet ta... Iñoiz gizonak entzun ez zi-

tuan bezelakoxe itz leun atsegingarriak izan ziran onexek! Eraman nazazu, Ama maitia, eramán nazazu zure Jesusgana, txertatu nazazu Jesus orren biotz-biotzian, berakin alkaturik bat izan nadin. Zorionekua ni Jesus orren bidetan sayatzen banaiz, Jesus orren txerta egiñaz zeruko aleak ematen baditut. Nere poza au betebetea izan dedin leyaldu nazazu, Ama eder orrek, bederatziurren ontan opa dedan sariya aginduaz. Amen.

SEIGARREN EGUNERAKO OTOITZA

Deposuit potentes de sede, et
exaltavit humiles.

Ontasun guztien iturburua zeran Andra Maria! Zure esana da, aundikeriaren lañezak arrotzen dituztenak gainberatu, ta mendekoak berriz azpikozgora jasoko ditula Jaungoikoak. Orixe bera adierazi zigun zure Seme Jesus buru argiak: Zorionekuak beartsuak zeratenak, zeruko aberastasunak zuentzat izango dira ta; zorionekuak, Jaunaren legea betetzarren, gose ta egarri zeratenak, zeruan ase-beteko zerate ta; zorionekuak, atzekabez naigabetuta negar-negarti bizi zeratenak, zeruko aberastasunak zuentzat dira ta... Bildurikara ta larritasun-miña eragiten bazigun Jaungoikoaren lege zuzenak, dan-dana da ariña ta leuna zuk eta zure ezpestelako Seme Jesusek adierazi zeniguten aldetik. Legepe zuzen ortan ibilli nai nuke bada nik, Jaungoikoaren mendean, nere men-

detasuna au ikusirik nizaz erruki izan dedin. Nerekiz beartsua naizena, atsekabez mindua ta gose ta egarri naizena, zeruko atsegintasunean bakarrik ames egin dezadan. Eta Zuk, Ama ongille orrek, azaldu zadazu zenbatarano atsegiña dan Jaungoikoaren lege bidezko ori, bederatziurren onen bidez zuregandik artuko detela ames egiten dedana, emanaz. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNERAKO O'TOITZA

Esurientes implevit bonis et divites dimisit inanes.

Maria, gure Ama atsegiña! Igerritan jarrita ere asmatuko ezgiñuzeken bezelakoxe adieragarri samurrak agertu zizkiguzun, zure sabel errugabeen zeramakizun Jesusek eragin da, izt egin zendunean. Bai, gure Jaangoiko guztialduna ezta aberatsen Jaungoikoa, beartsuena dan ainbe. Jaungoiko orren erakuspenak zeñi ta itxasgizon batzuei adierazi zien zure Seme jakintsu Jesusek; aukeran Genesaretko itxas ertze aldera egiten zan bera, itxasgendeai lagundu ta atseguintzearren. Beartsuen alde sayatu izan zan, baita esan ere esan zuan: aberatsen maipeko ogi apurraz mundu onetan janaritzen diran izen oneko beartsuak, goi zeruan asetahun betean biziko zirala. Zu ta zure Seme Jesus lur gañ ontan beartsuak izan baiziñaten! Nik ere zuen antzera, zitzak eta er-

doiak galtzen dituzten aberastasunai esker onik ematen ez tietela, zeruko ontasunak irabazi nai nituzke. Egin ezazu, Ama matatzalle orrek, zure itz atsegiñak nigan bete ditezen, baita bete dedilla nik bederatzi-urren ontan eskatzen ditzudana ere. Amen.

ZORTZIGARREN EGUNERAKO

OTOITZA

Suscepit Israel puerum suum,
recordatus misericordiae suae.

Maria, semeenzalea zeran Ama ederra! Pozez urtutzen gaituzen bezelakoxe gauza atsegingarriak, entzun ditugu zure aotik. Esanak dituzun gañez ¿zer geiago esan dezakezu? ¡A zure biotz samurra Jesus berbaren odola daramakiña da ta, zuk beste inork ezpezela antz ematen diezu Jesus orren biotzkaiari. Zure maitetasuna neur-tzen eztan gauza baita! Bai, entzutekoak izango dira oraingoan zure Seme Jesus orrezaz adieraziko dizkiguzunak! Agindu zigun errukitasunazaz gogoraturik, Jaungoikoak bere Seme bakarra bialdu zigula, diozu; zeru ta lurraren Jabegaia, izate guztiaren oñarria dan bere Seme Jesus emateañoxe maite izan giñuzela gure Jaungoiko onak. Eta guganako Jaungoi-

koaren maitetasun aundi ori, zure aotik entzun da, oraindik atsegiñagoa iruditzen zaigu. Burua nastu ezbeste egiteko ere baita, Amaren ao eztsutetik zerutar Aita-
ren berri jakitea! Maitetasuna maitetasunez bakarrik ordaintzen bada, nere zerutar Aita ona eta zu, nere benetako Ama, gauza guztien gañetik maite izan bear zaituztet. Berotu eiazu nere biotz otsepel au, Ama, zure biotz gartsuaren txinparta bat eman ezadazu, bederatziurren ontan eskatzen ditzudana ere eman ezadazu. Amen.

BEDERATZIGARREN EGUNERAKO

OTOITZA

Sicut locutus est ad patres nostros, Abraham et semini ejus in saecula.

Maria, gure itxaropena ta pozkaia ¡Zuk Jaungoikoaren izen itzal aundikoa goraldiaz, adierazi dizkiguzun burutazun ederrak! Zure biotz biguñak eman ala agertu dizkiguzun samurtasun leunak! Baita zuk aurrez ensandako danak bete ta osatu zaizkigu gure Anai nagusia dan Jesusen bitartez. Txanpon baten saltzen dan txoritxo bat aiñ ikusgarria ta entzungarria egin bazuan Jaungoikoak; sasi tartean erretzen dan lilio usaitsua, Salomon iñoiz jantzi ez zan bezin apaña gertatu bazuan; ¿zer ez ote zuan egingo bere begietako semeak geranakin? Aiñ maitagarria gera Jaungoikoaren aurrean, bere on iritzia eman zigun ainbekoak, noski. Eta bere on iritzia eman zigun, Jesus eta zure antza

degulako gure arpegian, zuen ontasunaren tanta bat degulako gure biotzian; zuen argi alaiaren dizdiri bat badegulako gure buruan. Jesus eta zure urrengoak gera, zeruko jabegaiak, beti-betiko zoriontsuak izateko egiñak. Zure begira burutasun pozgarri onetxek sortzen zaizkit, batere kutsu zikiñik eztezuan Ama ederra zera ta. Ondo gogartean artu nai ditut zure itz atsegingarriak, nere buruan erabilli nai ditut, beti onbidera zuzendu nadin; jatorriz zure antzera naizena, antz eder ori pekatu nazkagarriz ondatu ezdezan; zure aurrez esanak erabat nigan bete ta osatu ditezen. Gogoratu zaitez, Ama esku zabal ori, gaur bukatzen dedan bederatziurren ontan eskatzen ditzudanaz ere. Amen.

f. P. 100

EA-E

1003

10792

4a



JUNTA DELEGADA
DEL
TESORO ARTÍSTICO

Libros depositados en la
Biblioteca Nacional

Procedencia

N.º de la procedencia

MISER

AT
39